ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa
2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA: 1 **KALIFIKAZIOA**

DEITURAK .....

IZENA .....

NANa/AIZ .....

GIZARTE ZIENTZIAK

1. Koka itzazu mapa mutuan **AUTONOMIA ERKIDEGO GUZTIAK** eta **HAIEN HIRIBURUAK**



2. Zer dakizu **Europar Batasuna**ri buruz?

a) Zenbat herrialdek osatzen dute gaur egun EB?

b) Zein urtetan sartu zen Espainia EBn? Zein beste herrialderekin batera?

c) Zein da azkenik sartu den herrialdea?

d) Esanen zeniguke zein herrialde atera den gaur egun EBtik? Eztabaida askoren ondoren atera da eta irteera luzea izan da denboran. Behin betikoz zein urtetan atera da?

3. Ingura ezazu testu bakoitzak aipatzen duen **KONTZEPTUA.**

DESDOIKUNTZAK OLIOARI ERASAN DIO, 2019-09-21
Olioaren sektoreak aldaketak bizi ditu Espainian eta aldaketa horiek ustiategi tradizionalen jarraipena arriskuan jartzen dute ekoizpenean gertatzen ari diren gorabeherengatik. Kalkuluen arabera, Espainiako olibadien % 20 alde batera uzteko arriskuan dago, prezio baxuengatik eta teknifikazio txikieneko finken kostu handiengatik. Ekaitz perfektu batek, terminoaren zentzurik ezkorrenean hartuta, tokiko produktu bat mehatxupean du.

a) Librekanbismoa b) Eskaintza - Eskariaren legea c) Protekzionismoa

SÁNCHEZEN GOBERNUA KLASE ERTAINA UKITUKO DUEN IGOERA PRESTATZEN ARI DA, 2020-12-30
Pedro Sánchezen gobernuak onartutako igoera orokor batekin hasiko da 2021. urtea. Gobernuak askotan esan zuen "aberatsei" soilik igoko zizkiela, baina egia esan, edari azukredunak, ibilgailuen matrikulazioa edo pentsio-planak dira eragiten dieten produktuetako batzuk, eta klase ertainarentzat garestituko dira.

a) Zerga b) Aduana-zerga c) BEZa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

VOLKSWAGEN NAFARROAK EKOIZPENA GELDITUKO DU MARTXOAREN 14, 25 ETA 26AN, PIEZA ESKASIAGATIK, 2021-03-16
Mundu osoan erdieroaleen eskariak gora egin du, eta COVID-19aren pandemiaren ondorioz osagai horiek gutxiago ekoizten dira. Horrek guztiak automobilgintzaren sektoreko ia enpresa guztiei eragin die, osagai elektroniko horietako asko beste sektore batzuetara bideratu baitira, hala nola kontsumoko elektronikara edo osasunera.

a) Multinazionala b) Kooperatiba c) Frankizia

FESSENHEIM ITZALTZEN ARI DA EKOLOGISTEN TXALOEN ARTEAN, 2020-06-30
Deskonexioa, duela hilabete batzuetatik aurreikusia, garaipen moduan ospatu dute ekologista askok, Rhin ibaiaren ertz batean zein bestean. Izan ere, urte asko zeramatzaten Fessenheim-en arriskuak salatzen. "Zaharra, arriskutsua, urpean gera daitekeen eta sismikoa den eremu batean kokatua zegoena, Fessenheim, behin betiko gelditu da. Alsazian orri bat pasatu da, eta istripu-arriskua urruntzen da", esan zuen Stop Fessenheim! elkarteak Twitter sare sozialeko mezu batean. Alemaniarekiko eta Suitzarekiko hurbiltasunak kezkatzen zituen herrialde horiek, Frantzia behartzen baitzuten hura desegitera.

a) Biomasa energia b) Energia hidraulikoa c) Energia eolikoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

GEOGRAFIA

1. Adieraz itzazu Espainiako mapa mutuan ondoko erliebe unitateak: **Pirinioak, Guadalquivirko depresioa, Sistema Zentrala, Sistema Iberikoa, Toledoko Mendiak, Kataluniako Kostaldeko mendikatea, Kantauriko Mendikatea, Mazizo Galaikoa, Sierra Morena eta Sistema Betikoak.**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

2. Osa ezazu **NAFARROAKO KLIMEN** gaineko koadro hau

KLIMA MOTA	KOKALEKUA	TENPERATURAK	PREZIPITAZIOAK
Klima ozeanikoa			
Mendiko klima			
Trantsizioko klima			
Klima mediterraneo kontinentala			

3. Erantzun itzazu **ESPAINIAKO ETA EUROPAKO HIDROGRAFIA**RI buruzko galdera labur hauek

a) Esan ezazu zein diren Espainiako isurialde hidrografikoak

b) Zein da Espainiako ibairik emaritsuena?

c) Zein da Iberiar Penintsulako ibairik luzeena?

d) Esan ezazu Espainiako isurialde bakoitzeko ibai baten izena.

e) Zein da Europako ibairik luzeen eta emaritsuena?

f) Zer izen du Frantziako hiriburutik igarotzen den ibaiak?

g) Zer ibaik zeharkatzen ditu, beste 15 herrialderen artean, Alemania, Austria eta Polonia?

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa
2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

HISTORIA

1. Osa ezazu LEHEN eta BIGARREN MUNDU GERRA alderatzen dituen taula

	LEHEN MUNDU GERRA	**BIGARREN MUNDU GERRA**
Kronologia		
Eragin zuen gertakizuna		
Aliantzen izena		
Zein herrialdek osatzen dituzten		
2 gatazka garrantzitsu		
Bake itunak		

2. Irakur ezazu ondoko testua eta erantzun galderei

Zure ustez, gosea beharrezkoa da? Beharbada ezagutu duzu gosea. Hogei milioi aleman gose dira zu bezala (...) Bihar, enplegu agentziara itzuliko zara eta izena emanen duzu. Horretaz gainera, ez duzu beste egitekorik izanen bihar (...) Langabeen kopurua handitu da; lau milioi gehiago daude. Zure ustez, kopuru hori jaitsiko da metodoak aldatzen ez badira? (...) Behar dugun guztia eskura dugu: ogia egiten duen lurra, langileak, falta zaiguna oparo fabrikatuko luketen makinak. Orduan, zergatik gose izan? (...) Hori guztia normala iruditzen zaizu? Beraz, zoaz eta emaiezu botoa gure miseria ezertan aldatu ez duten eta urtetik urtera handiagotzen duten politikariei. Itxaropen izpiren baduzu, eman botoa nazionalsozialistei! Eman botoa hau guztia alda daitekeela uste duten horiei. Eta zer dio Hitlerrek honi buruz? Ez du ezer ere esaten. Adolf Hitlerrek zerbait eginen zuen. Ez zatekeen geldirik geratuko, atzerritarrek guri are diru gehiago zurrupatzen diguten bitartean. Adolf Hitlerrek eginen ligukeen guztia prest dago. Hitler zure zain dago, noiz emanen diozun botoa, hark gero zu laguntzeko."

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETAN SARTZEKO PROBA. 2021

11/2021 EBAZPENA, otsailaren 24koa

2021-05-20

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Nazien propaganda Prusiako hauteskundeetan. 1932ko apirila.

a) Testuan azpimarratutako esaldiak eta gertakariaren kronologia ikusita, zer gertakariz ari da?

b) Adolf Hitler kantziler izateko hautagai izan zen hauteskunde horietan. Zer alderdi ordezkatzen zuen?

c) Eman Adolf Hitlerren biografiaren gaineko zertzelada batzuk.

c) Azkenean, boterea 1933an eskuratu zuen eta Weimarren Errepublikari amaiera eman zion eta, orobat, hasi zen…

3. Defini itzazu 4 **GERTAERA HISTORIKO** hauek eta erantzun, besteak beste, ondoko galderei: Noiz? Non? Nork edo nortzuek? Zergatik?

- 1. Industria Iraultza:

- Anarkismoa:

- Inperialismoa:

- New Deal:

- Misilen krisia:

- Deskolonizazioa:

- Perestroika:

- Globalizazioa: